



Azpeitiko Udala

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN- POLITIKA



Azpeitiko Udala

ONARTZEA ETA INDARREAN JARTZEA

Azpeitiko Udaleko Segurtasun Batzordeak 2025ko martxoaren 25ean onartutako testua.

"Informazioaren Segurtasun Politika", aurrerantzean Politika, egun horretatik aurrera izango da eraginkorra, politika berri batek ordezkatzen duen arte.

BERTSIOEN KONTROLA

Bertsioa	Indarrean jartzeko data	Berrikus pen-data	Aldaketaren arrazoia	Onarpena
1.0	2025/03/25		Hasierako edizioa	Segurtasun Batzordea



Aurkibidea

1. Sarrera.....	4
2. Azpeitiko Udalaren misioa	4
3. Irismena	5
4. Arau-esparrua	5
5. Segurtasuneko gutxieneko baldintzak betetzea.....	8
6. Gobernantza eredua.....	12
6.1 Gobernantza eredua eta Informazioaren Segurtasun Batzordea	12
6.2 Segurtasun Eskema Nazionalari lotutako erantzukizunak	13
6.3 Informazioaren Segurtasun Batzordearen eginkizunak.....	14
6.4 Izendatzeko prozedura	15
6.5 Gatazka-konponketa	16
7. Datu pertsonalak	16
8. Informazioaren segurtasun-politikaren garapena	16
9. Hirugarren alderdiak	17



1. Sarrera

Azpeitiko Udala IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) sistemen mende dago, bere helburuak lortzeko, eskumenak baliatzeko eta esleituta dituen zerbitzuak emateko. Sistema horiek arretaz administratu behar dira, eta neurri egokiak hartu behar dira tratatutako informazioaren edo emandako zerbitzuen eskuragarritasunari, osotasunari edo konfidentzialtasunari eragin diezaioketen ustekabeko edo nahita egindako kalteetatik babesteko.

Informazioaren segurtasunaren helburua informazioaren konfidentzialtasuna, osotasuna, benetakotasuna eta trazabilitatea bermatzea da, baita zerbitzuak etengabe ematea ere. Horretarako, prebentzioz jardungo da, eguneroko jarduera gainbegiratuko da eta gertakariei aurre egingo zaie.

IKT sistemek babestuta egon behar dute bilakaera azkarreko mehatxuen aurka, informazioaren eta zerbitzuen konfidentzialtasunean, osotasunean, erabilgarritasunean, aurreikusitako erabileran eta balioan eragiteko ahalmena duten mehatxuen aurka. Mehatxu horietatik babesteko, inguruneko baldintzen aldaketetara egokitzen den estrategia bat behar da, zerbitzuak etengabe ematen direla bermatzeko. Horrek esan nahi du sailek Segurtasun Eskema Nazionalak eskatzen dituen gutxieneko segurtasun-neurriak aplikatu behar dituztela, bai eta zerbitzu-emate mailen etengabeko jarraipena egin, jakinarazitako ahuleziak jarraitu eta aztertu eta gorabeheriei erantzun eraginkorra eman ere, emandako zerbitzuen jarraitutasuna bermatzeko.

Sailek ziurtatu behar dute IKT segurtasuna sistemaren bizi-zikloaren etapa bakoitzaren zati integrala dela, sortzen denetik zerbitzua kendu arte, garatzeko edo eskuratzeko erabakiekin eta ustiapen-jarduerekin batera. Segurtasun-baldintzak eta haien kostuaren balorazioa identifikatu eta plangintzan, eskaintzen eskaeran eta IKT proiektuetarako lizitazio-pleguetan sartu behar dira.

2. Azpeitiko Udalaren misioa

Azpeitiko Udalak, bere interesak eta hainbat arau edo hitzarmenetan esleituta dituen eginkizunak eta eskumenak kudeatzeko, herritarren beharrak eta nahiak asetzen laguntzen duten jarduerak sustatzen ditu eta zerbitzu publikoak ematen ditu. Horretarako, herritar horien eskura jartzen ditu online izapideak, administrazio-prozeduren izapidetze elektronikoa bultzatzeko, zerbitzuak hobeto emateko eta herritarrek gai publikoetan hobeto parte hartzeko. Horrela, parte hartzeko bide berriak ezarriko dira, demokrazia parte-hartzailearen garapena eta ekintza publikoaren efikazia eta efizientzia bermatzeko.

Bestalde, teknologia berrien erabilera sustatu nahi da udalean eta baita herritarrengan ere. Honako hauek dira, besteak beste, lortu nahi diren helburu nagusiak: herritarrek udalarekin duten harreman elektronikoa sustatzea, eta harreman horretan herritarren eta Udalaren artean beharrezko konfiantza sortzea.



3. Irismena

Azpeitiko Udalaren informazio-sistemei aplikatuko zaie politika hori. Sistema horiek lotuta daude eskubideak bitarteko elektronikoen bidez gauzatzearekin, betebeharrak bitarteko elektronikoen bidez betetzearekin edo informazioa edo administrazio-prozedura eskuratzearekin, eta Segurtasunaren Eskema Nazionalaren (SEN) aplikazio-eremuan daude..

4. Arau-esparrua

Azpeitiko Udalaren jarduera eta eskumenen garapenari eragiten dion arau-oinarria, administrazio elektronikoari dagokionez, eta informazio-sistemetan segurtasun-neurriak esplizituki ezartzea dakarrena, honako lege hauek osatzen dute:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena.
- 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarrengarritasun Eskema Nazionala arautzen duena
- Ebazpena, 2016ko urriaren 13koa, Administrazio Publikoen Estatu Idazkaritzarena, Segurtasun Eskema Nazionalaren arabera Segurtasun Instrukzio Teknikoa onartzen duena.
- Ebazpena, 2016ko urriaren 7koa, Administrazio Publikoen Estatu Idazkaritzarena, Segurtasunaren Egoerari buruzko Txostenaren Segurtasun Instrukzio Teknikoa onartzen duena.
- Ebazpena, 2018ko martxoaren 27koa, Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzarena, Informazio Sistemen Segurtasuna Ikuskatzeko Segurtasun Instrukzio Teknikoa onartzen duena.
- Ebazpena, 2018ko apirilaren 13koa, Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzarena, Segurtasun Intzidentek Jakinarazteko Segurtasun Instrukzio Teknikoa onartzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona



Azpeitiko Udala

fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, DBEO) indargabetzen duena.

- 36/2015 Legea, irailaren 28koa, Segurtasun Nazionalarena.
- 6/2020 Legea, azaroaren 11koa, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren alderdi jakin batzuk arautzen dituen.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko 910/2014 (EB) Erregelamendua (esteka: <https://www.boe.es/doue/2014/257/L00073-00114.pdf>), identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetako konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (eIDAS erregelamendua).
- 1308/1992 Errege Dekretua, urriaren 23koa, Armadaren Errege Institutu eta Behatokiko laborategia Espainiako Metrologia Zentroari lotutako denbora- eta laborategi-patroi nazionalaren laborategi gordailuzain deklaritzen duena.
- 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuei buruzkoa.
- 37/2007 Legea, azaroaren 16koa, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzkoa.
- 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuei buruzkoa
- 1553/2005 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, nortasun-agiri nazionala eta haren sinadura elektronikoko ziurtagiriak arautzen dituen.
- 25/2007 Legea, urriaren 18koa, komunikazio elektronikoei eta komunikazioen sare publikoei buruzko datuak kontserbatzeari buruzkoa.
- 56/2007 Legea, abenduaren 28koa, informazioaren gizartea bultzatzeko neurriei buruzkoa.
- 1494/2007 Errege Dekretua, azaroaren 12koa, desgaitasuna duten pertsonen informazioaren gizartearekin eta gizarte-hedabideekin lotutako teknologiak, produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko oinarrizko baldintzei buruzko Erregelamendua onartzen duena.
- 1495/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea Estatuko sektore publikoaren eremurako garatzen duena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
- 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, faktura elektronikoa bultzatzekoa eta sektore publikoan fakturen erregistro elektronikoa sortzekoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatua.



Azpeitiko Udala

- 16/1985 Legea, ekainaren 25ekoa, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa (artxiboa).
- 1/1996 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 12koa, Jabetza Intelektualaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
- 9/2014 Lege Orokorra, maiatzaren 9koa, Telekomunikazioei buruzkoa (indarrean dago ekainaren 28ko 11/2022 Legearen xedapen indargabetzaile bakarrean adierazitako apartatuetan).
- 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duena.
- 11/2022 Lege Orokorra, ekainaren 28koa, Telekomunikazioei buruzkoa (lege honen xedapena indarrean jartzeko epeen arabera).
- Azpeitiko Udalaren sinadura elektronikoaren politika.
- Azpeitiko Udalaren egoitza elektronikoa ezartzen duen Erregelamendua.

Era berean, arau-esparruaren parte dira Azpeitiko Udalaren Administrazio Elektronikoki aplikatu beharreko gainerako arauak, aurrekoetatik eratorriak eta egoitza elektronikoetan argitaratuak, besteak beste, politika honen aplikazio-eremuaren barruan.

Azpeitiko Udalaren ardura izango da arau-esparruari eustea, eta dokumentu honen eranskin batean jasoko da. Nahitaez bete beharreko segurtasun-jarraibide teknikoak barne, Administrazio Publikoen Estatu Idazkaritzaren ebazpen bidez argitaratuak eta Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak onartuak, Administrazio Elektronikoren Batzorde Sektorialak proposatuta eta Kriptologia Zentro Nazionalaren ekimenez, Errege Dekretuan ezartzen den bezala.

Era berean, Azpeitiko Udala arduratuko da arestian aipatutako artikuluko horretan aipatzen diren Kriptologia Zentro Nazionalaren segurtasun-jarraibideak identifikatzeaz, Segurtasun Eskema Nazionalan ezarritakoa hobeto betetzeko aplikatuko direnak.



5. Segurtasuneko gutxieneko baldintzak betetzea

Azpeitiko Udalak, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretua, oinarrizko printzipioak eta gutxieneko baldintzak jasotzen dituen, betetzea lortzeko, informazioaren izaerarekiko eta babestu beharreko zerbitzuekiko proportzionalak diren hainbat segurtasun-neurri ezarri ditu, eragindako sistemen kategoria kontuan hartuta.

Segurtasuna prozesu integral eta gutxieneko pribilegio gisa

Segurtasuna prozesu integrala da, sistemarekin zerikusia duten elementu tekniko, giza elementu, material, juridiko eta antolakuntzazko guztiek osatua. Azpeitiko Udalak Segurtasun Eskema Nazionala aplikatzeko, printzipio hori izango du ardatz, eta baztertu egingo du edozein jarduketa puntual edo tratamendu koiuntural.

Ahalik eta arreta handiena jarriko da prozesuan parte hartzen duten pertsonen eta haien arduradun hierarkikoen kontzientziazioan, ezjakintasuna, antolaketarik eta koordinaziorik eza edo jarraibide desegokiak segurtasunerako arrisku-iturri izan ez daitezen.

Informazio-sistemak diseinatu eta konfiguratzeko, behar bezala jarduteko behar diren gutxieneko eskumenak eman behar dira, eta, horretarako, honako alderdi hauek sartu behar dira:

- a) Sistemak ezinbesteko funtzionaltasuna emango du erakundeak bere eskumen- edo kontratu-helburuak lor ditzan.
- b) Jardueraren eragiketa-, administrazio- eta erregistro-funtzioak beharrezkoak diren gutxienekoak izango dira, eta ziurtatuko da pertsona baimenduek soilik garatzen dituztela, leku edo ekipo baimenduetatik; hala badagokio, ordutegi-murrizketak eta sarbide baimenduak eskatu ahal izango dira.
- c) Ustiapen-sistema batean, konfigurazioaren kontrolaren bidez, beharrezkoak ez diren edo lortu nahi den helbururako desegokiak diren funtzioak ezabatu edo desaktibatuko dira. Sistemaren ohiko erabilerak erraza eta segurua izan behar du, eta erabiltzaileak jabetu egin behar du erabilera ez-segurua egiten ari denean.
- d) Teknologia desberdinetarako segurtasuna konfiguratzeko jarraibideak aplikatuko dira, sistemaren kategorizaziora egokituta, beharrezkoak edo desegokiak diren funtzioak ezabatzeko edo desaktibatzeko.

Etengabeko zaintza, aldizkako berrebaluazioa eta osotasuna, sistema eguneratzea eta segurtasun-prozesua etengabe hobetzea

Azpeitiko Udalaren etengabeko zaintzari esker, ohiz kanpoko jarduerak edo portaerak detektatu ahal izango dira, eta erantzun egokia eman.

Aktiboen segurtasun-egoeraren etengabeko ebaluazioak haien bilakaera neurtzea ahalbidetuko du, ahuleziak hautemanez eta konfigurazio-gabeziak identifikatuz.



Azpeitiko Udala

Segurtasun-neurriak aldian-aldian berriz ebaluatu eta eguneratuko dira, eta haien eraginkortasuna arriskuen eta babes-sistemen bilakaerara egokituko da. Beharrezkoa izanez gero, segurtasuna birplanteatu ahal izango da.

Sistemako aktiboen katalogo eguneratuan edozein elementu fisiko edo logiko sartzeko edo aldatzeko, alde zuzeneko baimen formal beharko da.

Ebaluazio eta monitorizazio etengabeari esker, sistemen segurtasun-egoera egokitu ahal izango da, konfigurazio-gabeziak, identifikatutako ahuleziak eta eragiten dieten eguneratzeak kontuan hartuta, bai eta horietan gertatzen den edozein gorabeheraren detekzio goiztiarra ere.

Ezarritako segurtasun-prozesu integrala etengabe eguneratu eta hobetu beharko da. Horretarako, informazioaren teknologien segurtasunaren kudeaketari buruz nazioan eta nazioartean onartutako irizpideak eta metodoak aplikatuko dira.

Langileen kudeaketa eta profesionaltasuna

Azpeitiko Udaleko informazio-sistemekin zerikusia duten langile guztiei, enpresakoei zein kanpokoei, SENen esparruan, segurtasun-arloan dituzten eginkizun, betebeharrak eta erantzukizunei buruzko prestakuntza eta informazioa emango zaie. Haien jarduna gainbegiratu da, ezarritako prozedurei jarraitzen zaiela egiaztatzeko.

Sistemaren irismen eta erabilera seguruaren esanahia segurtasun-arau batzuetan zehaztu eta islatu dira, eta arau horiek dagokion zuzendaritzak edo goragoko organoak onartu ditu. Era berean, langileek beren lanpostua betetzeko behar dituzten prestakuntza- eta esperientzia-baldintzak zehaztu dira.

Informazio-sistemen segurtasunari bere bizi-zikloaren fase guztietan (plangintzan, diseinuan, eskurapenean, eraikuntzan, hedapenean, ustiapenean, mantentze-lanetan, gorabeheren kudeaketa eta desartikulazioan) langile kualifikatu, aritu/aditu eta trebatutakoek ikuskatu, berrikusi eta erantzun diote.

Direktiboki eta diskriminaziorik gabe, zerbitzuak ematen dizkiguten erakundeek profesional kualifikatuak eta emandako zerbitzuen kudeaketa- eta heldutasun-maila egokiak izatea eskatu da.

Arriskuen arabera segurtasunaren kudeaketa, arriskuen azterketa eta kudeaketa

Arriskuen analisia eta kudeaketa segurtasun-prozesuaren funtsezko zatia izango da, eta etengabe eguneratuko den jardura izango da.

Arriskuen kudeaketak ingurune kontrolatua mantentzea ahalbidetuko du, arriskuak maila onargarrietan minimizatuz. Maila horietara murrizteko, segurtasun-neurriak behar bezala aplikatu dira, modu orekatu eta proportzionatua tratatutako informazioaren, eman beharreko zerbitzuen eta izan ditzaketen arriskuen izaeraren arabera.

Kudeaketa hori egiteko, sistemak dituen arriskuak aztertu eta tratatu dira. II. eranskinean xedatutakoari kalterik egin gabe, nazioartean onartutako metodologiaren bat erabiliko da. Arriskuak arintzeko edo ezabatze hartutako neurriak justifikatuta egon beharko dira, eta, nolahi ere, proportzionaltasuna egongo da neurrien eta arriskuen artean.

Segurtasun-, prebentzio-, detekzio-, erreakzio- eta berreskuratze-gertakariak



Azpeitiko Udala

Azpeitiko Udalak segurtasun-gertakariak kudeatzeko prozedurak ditu, 33. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baita dagokion Segurtasuneko Instrukzio Teknikoa, detekzio-mekanismoak, sailkapen-irizpideak, analisi- eta ebazpen-prozedurak eta alderdi interesdunei jakinarazteko bideak ere.

Sistemaren segurtasunak prebentzio-, detekzio- eta erantzun-alderdiei buruzko ekintzak hartuko ditu kontuan, haren ahuleziak minimizatzeko eta haren gaineko mehatxuak ez gauzatzeko edo, hala eginez gero, erabiltzen duen informazioan edo ematen dituen zerbitzuetan eragin larririk ez izateko.

Prebentzio-neurriek disuasioa eragiteko edo esposizioa murrizteko osagaiak izango dituzte, eta mehatxuak gauzatzeko aukera ezabatu edo murriztu behar dute.

Detekzio-neurrien helburua izango da zibergertakari bat dagoela aurkitzea.

Erantzuteko neurriak garaiz kudeatuko dira, eta segurtasun-gertakari baten eragina jasan duten informazioa eta zerbitzuak lehengoratzeko izango dira.

Informazio-sistemak datuak eta informazioa euskarri elektronikoan gordeko direla bermatuko du.

Era berean, sistemak eskuragarri izango ditu zerbitzuak informazio digitalaren bizi-ziklo osoan, ondare digitala babesteko oinarri izango diren kontzepzio eta prozeduren bidez.

Elkarri lotutako beste informazio-sistema batzuen aurrean defentsa- eta prebentzio-ildoak egotea

Azpeitiko Udalak informazio-sistema babesteko estrategia bat ezarri du. Estrategia hori hainbat segurtasun-geruzaz osatuta dago, eta neurri antolatzaile, fisiko eta logikoz osatuta dago. Horrela, geruza bat konprometitu denean, saihestu ezin izan diren segurtasun-gertakarien aurrean erreakzio egokia garatzea ahalbidetzen du, sistema bere osotasunean konprometitzeko probabilitatea murriztuz eta haren gaineko azken inpaktua minimizatuz.

Informazio-sistemaren perimetroa babestuko da, batez ere Udalaren sistema sare publikoetara konektatzen denean, telekomunikazioen arloan indarrean dagoen legerian definitzen diren moduan, eta segurtasun-gertakariak prebenitzeko, detektatzeko eta erantzuteko lanak indartuko dira.

Nolanahi ere, sistema beste sistema batzuekin konektatzearen ondoriozko arriskuak aztertuko dira eta horien lotura-puntua kontrolatuko da. Sistemen arteko konexio egokia egiteko, dagokion Segurtasun Jarraibide Teknikoan xedatutakoa bete beharko da

Erantzukizunak bereiztea, segurtasun-prozesua antolatzea eta ezartzea

Azpeitiko Udalak bere segurtasuna antolatu du, eta korporazioko kide guztiak konprometitu ditu erantzukizun bereiziak dituzten hainbat segurtasun-rol izendatuz, dokumentu honetako "GOBERNANTZA-EREDUA" atalean jasotzen den bezala.

Sarbideak baimentzea eta kontrolatzea



Azpeitiko Udala

Azpeitiko Udalak informazio-sistamarako sarbidea kontrolatzeko mekanismoak ezarri ditu, behar bezala baimendutako erabiltzaile, prozesu, gailu eta bestelako informazio-sistemetara mugatuta, eta soilik baimendutako funtzioetara.

Instalazioen babesa

Azpeitiko Udalak sarbide fisikoa kontrolatzeko mekanismoak ezarri ditu, baimenik gabeko sarbide fisikoak eta informazioari eta baliabideei egindako kalteak aurreikusiz, segurtasun-perimetroen, kontrol fisikoen eta babes orokorren bidez.

Segurtasun-produktuak erostea eta segurtasun-zerbitzuak kontratatzea

Segurtasun-produktuak erosteko edo segurtasun-zerbitzuak kontratatzeko, Azpeitiko Udalak kontuan hartuko ditu sistemaren kategoriaren eta segurtasun-mailaren arabera erabilera proportzionala, baldin eta erosketaren xedearekin lotutako segurtasun-funtzionaltasuna ziurtatuta badute.

Segurtasun-zerbitzuak kontratatzeko, profesionaltasunari buruz adierazitakoa hartuko da kontuan.

Biltegiatuta eta zirkulazioan den informazioaren babesa eta jardueraren jarraitutasuna

Azpeitiko Udalak arreta berezia jarriko du ekipamendu edo gailu eramangarri edo mugikorren, gailu periferikoen, informazio-euskarrien eta sare irekien gaineko komunikazioen bidez biltegiatutako edo zirkulazioan den informazioan, horiek bereziki aztertu beharko baitira babes egokia lortzeko.

Errege-dekretu honen aplikazio-eremuan sartzen diren informazio-sistemek sortutako dokumentu elektronikoak epe luzera berreskuratu eta kontserbatuko direla bermatzeko prozedurak aplikatuko dira, hori eskatzea dagoenean.

Errege-dekretu honetan aipatzen den informazio elektronikoarekin zuzeneko lotura duen edo ondorio izan den euskarri ez-elektronikoan dagoen informazio orok dekretuak ezarritako segurtasun-maila bera izan beharko du. Horretarako, euskarriaren izaerari dagozkion neurriak aplikatuko dira, aplikagarri diren arauen arabera.

Sistemek segurtasun-kopiak izango dituzte, eta beharrezko mekanismoak ezarriko dira ohiko bitartekoak galduz gero eragiketen jarraitutasuna bermatzeko

Jarduera-erregistroa eta kode kaltegarriaren detekzioa

Azpeitiko Udalak, errege-dekretu honen xedea betetzeko asmoz, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta eragindakoen irudirako eskubidearen berme guztiekin, eta datu pertsonalak, funtzio publikokoak edo lanekoak babesteari buruzko araudiarekin eta aplikatu beharreko gainerako xedapenekin bat etorriz, erabiltzaileen jarduerak erregistratuko ditu, eta jarduera bidegabe edo baimendu gabeko horiek monitorizatzeko, aztertzeko, ikertzeko eta dokumentatzeko beharrezkoa den informazioa gordeko du, une bakoitzean jarduten duen pertsona identifikatzeko aukera emanez.

Informazio-sistemen segurtasuna zaintze aldera, administrazio publikoen jarduketa-printzipioak zorrotz betetzen direla bermatuz, eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean



Azpeitiko Udala

ezarritakoarekin bat etorriz, eta xedea mugatzeko, datuak minimizatzeko eta bertan adierazitako kontserbazio-epea mugatzeko printzipioak errespetatuz, Udalak, behar den neurri zorrotzean eta proportzionatuan, sartu edo irteten diren komunikazioak aztertu ahal izango ditu, beti ere informazioaren segurtasunerako soil-soilik, informazio-sare eta -sistemetara baimenik gabe sartzea eragotzi ahal izateko, zerbitzua ukatzeko erasoak geldiarazi ahal izateko, kode kaltegarria asmo txarrez hedatzea saihesteko, eta sare eta informazio-sistema horiei beste kalte batzuk saihesteko.

Erantzukizunak zuzentzeko edo, hala badagokio, eskatzeko, informazio-sistemara sartzen den erabiltzaile bakoitzak modu bakarrean identifikatuta egon beharko du, une oro jakin ahal izateko sarbide-eskubideak nork jasotzen dituen, zein motatakoak diren eta jarduera jakin bat nork egin duen.

Azpiegitura eta zerbitzu komunak

Azpeitiko Udalak kontuan izango du herri-administrazioen azpiegitura eta zerbitzu komunak erabilerak (partekatutako edo zeharkakoak barne) errege-dekretu honetan xedatutakoa betetzen lagunduko duela.

Konfigurazio seguruak inplementatzeko erakundearen berariazko betetze-profilak eta akreditazioa

Azpeitiko Udalak kontuan hartuko du toki-erakundeetarako aplikagarriak diren betetze-profil espezifikoaren aplikazioa.

6. Gobernantza eredua

Segurtasun Eskema Nazionala betetzen dela bermatzeko eta Azpeitiko Udalean informazioaren segurtasunaren antolamendua ezartzeko, segurtasun-rolak izendatuko ditu eta Informazioaren Segurtasun Batzordea eratuko du.

6.1 Gobernantza eredua eta Informazioaren Segurtasun Batzordea

Erregelamendu bidez ezarritako neurriak betetzen eta egokitzen direla bermatzeko, segurtasun-rolak edo -profilak sortu dira, eta horiek beteko dituzten karguak eta organoak izendatu dira, honela:

- **Informazio-arduraduna (k):** Udaleko alkate-udalburua
- **Zerbitzuen arduraduna:** Udaleko alkate-udalburua
- **Segurtasun-arduraduna:** Idazkaritza
- **Sistemaren arduraduna:** Informatika Saileko arduraduna



Azpeitiko Udala

- **Datuak Babesteko Ordezkaria (DBO):** azpikontrataturako zerbitzua

Era berean, eta aukeran, lantalde espezializatuak (barnekoak, kanpokoak edo mistoak) sartu ahal izango dira Batzordearen zereginetan.

Batzordeko kideak lau urtean behin berrituko dira, edo kargua hutsik geratzen denean.

6.2 Segurtasun Eskema Nazionalari lotutako erantzukizunak

Jarraian, Segurtasun Eskema Nazionalaren (SEN) segurtasun-rol bakoitzaren funtzioak eta erantzukizunak zehazten eta ezartzen dira:

Informazioaren eta zerbitzuen arduradunaren eginkizunak

- Zerbitzuari eta informazioari aplikatu beharreko segurtasun-betekizunak ezartzea eta onartzea, Segurtasun Eskema Nazionalaren Errege Dekretuaren I. eranskinean ezarritako esparruaren barruan.
- Zerbitzuari eta informazioari eragiten dieten hondar-arriskuen mailak onartzea.

Segurtasun-arduradunaren eginkizunak

- Erabilitako informazioaren eta informazio-sistemek emandako zerbitzu elektronikoaren segurtasun-maila egokia mantentzea eta egiaztatzea.
- Informazioaren segurtasunaren arloko prestakuntza eta kontzientziazioa sustatzea.
- Arriskuen analisia eta aplikagarritasun-adierazpena egiteko arduradunak izendatzea, segurtasun-neurriak identifikatzea, beharrezko konfigurazioak zehaztea, sistemaren dokumentazioa lantzea.
- Sistemaren kategoria zehazteko aholkularitza ematea, sistemaren arduradunarekin lankidetzan.
- Segurtasuna hobetzeko planak egiten eta ezartzen parte hartzea, eta, hala badagokio, jarraipen-planak egitea eta baliozkotzea.
- Sistemaren kanpo- edo barne-berrikuspenak kudeatzea.
- Ziurtapen-prozesuak kudeatzea
- Zuzendaritzari sistemaren aldaketen eta beste eskakizun batzuen onarpena helaraztea.

Sistemaren arduradunaren eginkizunak

- Informaziorako edo zerbitzu-prestaziorako sarbidea geldiaraztea edo etetea, segurtasun-akats larriak dituztela jakinez gero.



Azpeitiko Udala

- Informazio-sistema bere bizi-ziklo osoan garatzea, erabiltzea eta mantentzea.
- Beharrezko prozedura operatiboak prestatzea.
- Informazio Sistemaren topologia eta kudeaketa definitzea, eta bertan erabilgarri dauden zerbitzuak eta erabilera-irizpideak ezartzea.
- Segurtasun-neurri espezifikoak segurtasun-esparru orokorraren barruan behar bezala txertatzen direla ziurtatzea.
- Informazioaren segurtasuneko arduradunari aholkularitza ematea Sistemaren Kategoria zehazteko.
- Hala eskatzen bazaio, segurtasuna hobetzeko planak eta, hala badagokio, jarraipen-planak egiten eta ezartzen laguntzea.
- Sistemaren segurtasun-administratzailearen eginkizunak betetzea:
- Segurtasun-mekanismoak eta -zerbitzuak oinarritzen diren hardwarea eta softwarea kudeatzea, konfiguratzea eta, hala badagokio, eguneratzea.
- Sistemaren erabiltzaileei emandako baimenak kudeatzea, bereziki emandako eskumenak, sisteman garatutako jarduera monitorizatzea eta emandako baimenekin bat etortzea.
- Informazio-sistemaren egungo konfigurazioaren aldaketak onartzea.
- Ezarritako segurtasun-kontrolak zorrotz betetzen direla ziurtatzea.
- Informazio-sistema erabiltzeko onartutako prozedurak aplikatzen direla ziurtatzea.
- Hardwareko eta softwareko instalazioak eta horien aldaketak eta hobekuntzak gainbegiratzea, segurtasuna arriskuan ez dagoela eta une oro dagozkion baimenekin bat datorrela ziurtatzeko.
- Segurtasun-gertakariak kudeatzeko tresnek eta auditoretza teknikoko mekanismoek emandako segurtasun-egoera monitorizatzea.

6.3 Informazioaren Segurtasun Batzordearen eginkizunak

Hauek dira Informazioaren Segurtasun Batzordearen berezko eginkizunak:

- Informazioaren segurtasunaren, Administrazioaren segurtasunaren eta segurtasun-rolen eta/edo arloen esparruko eskaerei erantzutea, eta Informazioaren Segurtasunaren egoeraren berri ematea aldian behin.
- Informazioaren segurtasunari buruz aholkatzea.
- Administrazio-unitateen artean ager daitezkeen erantzukizun-gatazkak konpontzea.



Azpeitiko Udala

- Informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistemaren etengabeko hobekuntza sustatzea. Horretarako, honako hauek egingo ditu:
 - o Udaleko arlo bakoitzak informazioaren segurtasunaren esparruan egiten dituen ahaleginak koordinatzea, arlo horiek sendoak direla eta arlo horretan erabakitako estrategiarekin bat datozela ziurtatzeko eta bikoiztasunak saihesteko.
 - o Informazioaren segurtasuna hobetzeko planak proposatzea, dagokion aurrekontu-zuzkidurarekin, eta baliabideak mugatuak direnean, segurtasun-esparruko jarduerari lehentasuna ematea.
 - o Proiektu guztietan, hasierako zehaztapenetik martxan jarri arte, informazioaren segurtasuna kontuan har dadin zaintzea. Bereziki, bikoiztasunak murriztuko dituzten eta IKT sistema guztien funtzionamendu homogeneoa bultzatuko duten zerbitzu horizontalak sortu eta erabiliko direla zaindu beharko du.
 - o Administrazioak bere gain hartutako hondar-arrisku nagusien jarraipena egitea, eta arrisku horien inguruan egin daitezkeen jarduketak gomendatzea.
 - o Segurtasun-gertakarien kudeaketaren jarraipena egitea eta horien inguruan egin daitezkeen jarduketak gomendatzea.
 - o Informazioaren segurtasun-politika egitea eta aldian behin berrikustea, organo eskudunak onar dezan.
 - o Informazioaren segurtasunari buruzko araudia prestatzea, Zuzendaritza Nagusiarekin koordinatuta onartzeko.
 - o Informazioaren eta gainerako dokumentazioaren segurtasun-prozedurak egiaztatzea, horiek onartzeko.
 - o Langileak informazioaren segurtasunaren arloan eta, bereziki, datu pertsonalen babesaren arloan prestatzeko eta sentsibilizatzeko prestakuntza-programak egitea.
 - o Administrazioaileak, operadoreak eta erabiltzaileak informazioaren segurtasunaren ikuspegitik prestatzeko eta kalifikatzeko baldintzak prestatzea eta onartzea.
 - o SENen eta datuen babesaren aldizkako auditoretzak egin daitezen sustatzea, Administrazioak informazioaren segurtasunaren arloan dituen betebeharrak betetzen direla egiaztatu ahal izateko.

6.4 Izendatzeko prozedura

Azpeitiko Udalak izendatu ditu politika honetan identifikatutako arduradunak, eta eragiten dietenei jakinarazi die.



Azpeitiko Udala

Segurtasun-rolak **lau urtean behin** berrikusiko dira lanpostu huts bat badago. Lanpostu huts hori **hilabeteko epean** bete beharko da, prozedura berari jarraituz.

6.5 Gatazka-konponketa

Arduradunen arteko gatazkarik badago, Informazioaren Segurtasunerako Batzordeak erabakiko du.

7. Datu pertsonalak

Azpeitiko Udalak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, indarrean dagoen araudiaren printzipioak eta betebeharrak betetzen ditu, besteak beste, 679/2016 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra-DBEO) indargabetzen duena, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa, betiere datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea, intimitatea eta legerian eta nazioarteko tratamenduetan nahiz indarrean dagoen Konstituzioan aitortutako gainerako oinarritzko eskubideak errespetatuz.

8. Informazioaren segurtasun-politikaren garapena

Segurtasun-politika honetan ezarritako helburuak betetzeko, Segurtasun Eskema Nazionala betetzeari lotutako segurtasun-arauak eta -prozedurak osatzen dituzten dokumentuak garatu behar dira. Antolatzeke, Dokumentazioa Kudeatzeko Arau bat definitu da, eta arau horrek ezartzen ditu antolaketa- eta kudeaketa- eta sarbiderako jarraibideak.

Politika hau urtero berrikustea Informazioaren Segurtasun Batzordeari dagokio, eta, beharrezkoa bada, hura hobetzea proposatuko du, politika hasieran onetsi zuen organoak berak onar dezan.



9. Hirugarren alderdiak

Beste erakunde batzuei zerbitzuak ematen zaizkienean, edo beste erakunde batzuen informazioa erabiltzen dutenean, informazioaren segurtasun-politika honen berri emango zaie. Azpeitiko Udalak informazioa koordinatzeko kanalak eta segurtasun-gorabeheren aurrean erreakzionatzeko jarduketa-prozedurak definitu eta onartuko ditu, bai eta Udalak beste erakunde batzuekin segurtasunaren arloan egiten dituen gainerako jarduerak ere.

Azpeitiko Udalak hirugarrenen zerbitzuak erabiltzen ditutenean edo hirugarrenei informazioa lagatzen dienean, segurtasun-politika honen eta zerbitzu edo informazio horiei dagokien segurtasun-araudiaren berri emango zaie. Hirugarren alderdi horrek aipatutako araudian ezarritako betebeharrak bete beharko ditu, eta araudi hori betetzeko prozedura operatibo propioak garatu ahal izango ditu. Gorabeherak jakinarazteko eta konpontzeko prozedura espezifikoak ezarriko dira.

Hirugarrenen langileak segurtasunaren arloan behar bezala kontzientziatuta egotea bermatuko da, gutxienez segurtasun-politika honetan ezarritako maila berean.

Era berean, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian (Segurtasun Eskema Nazionalaren Garapena) jasotako Segurtasuneko Jarraibide Teknikoetan xedatutakoa betetzeko betebeharra kontuan hartuta, eta Segurtasuneko Eskema Nazionalarekin bat datorren Segurtasuneko Jarraibide Teknikoa kontuan hartuta, non ezartzen baita erakunde publikoei zerbitzuak edo irtenbideak ematen dizkieten sektore pribatuko operadoreek, Segurtasuneko Eskema Nazionala betetzea eska dakiekeela, dagokien Segurtasuneko Eskema Nazionalarekin bat etortzeko Adierazpena erakusteko moduan egon beharko dutela OINARRIZKO kategoriako sistemen kasuan, edo Segurtasuneko Eskema Nazionalarekin bat etortzearen Ziurtagiria erakusteko moduan, KATEGORIA ERTAINEKO edo ALTUKO sistemen kasuan.

Segurtasun-politika horren alderdiren bat ezin badu hirugarren alderdi batek bete, aurreko paragrafoetan eskatzen denaren arabera, segurtasun-arduradunaren txostena eskatuko da, zer arrisku dituen eta nola tratatu behar diren zehazteko. Txosten hori informazio- eta zerbitzu-arduradunek onartu beharko dute, hirugarren alderdiarekin harremana hasi aurretik.